

*** Ikasleek egindako PROPOSAMENAK (07-08 ikasturtea) eta Arrasateko Udalak hartutako neurriak (erabakiak eta egindako lanak)**

1.- Erdiguneko dendetan erostearen abantailak ilusita eta espazio hauetan erosteko baldintzak hobetzeko ondo egongo litzateke urbanoa maiztasun gehiagorekin pasatzea eta erosketako tikea erakusterakoan biletean deskontua edukitzea.

Arrasateko Udalak Tokiko Agenda 21eko ekintza planean programa bat du herriko sektore kormertziala indarberritzeko.

2000.urtean martxan jarri zuen urbanoaren zerbitzu hau eta 2010ean urbano zerbitzuarekin kontratazio berria egingo da eta maiztasun gehiagorekin pasatzea aztertu egingo da udal honetan..

Bestetik Ibaiarte elkartetik (dendarien elkarte) aztertzen ari da berriz dendan egindako erostetaren tikearekin aparkalekuan deskontuak izatea.

2.- Dendetan banatzen diren poltsak plastikozkoak izan ordez biodegradagarriak izatea. Udalak telazko poltsak herritarren artean berriz banatzea ondo legote.

2005ean Debagoieneko Mankomunitatetik etxe guztietan banatu ziren 22.500 telazko poltsa eta 2006ean kontzientziazio kanpaina bat egin zen (kartelak eta hezitzaile batekin kaleetan). Mankomunitateko teknikariek esan digutenez Diputaziotik laister jarrito da martxan beste kanpaina bat eta Gipuzkoako etxe guztietara bidaliko dira poltsak.

Bestetik Ibai-Arte (Arrasateko Merkatari eta Zerbitzu Elkarte) 2009an burutuko dituen ekintzen artean paperezko poltsak banatzea aurrikusita dauka, honela plastikozko poltsak ordezkatzeko joango dira (75.000 inguru banatuko dira); gai honekin lotuta jardunaldi bat ere antolatuko da.

3.- Herriko autobusetan baserriko produktuen publizitatea jartzeko laguntza ematea.

Udalak Baserriko Produktuen Azoka 2004.urteetik antolatzen du eta publizitatea karteletan eta prentsan egiten du. Aurten dagokion udal departamentuarekin (emlegu departamentua) hitzegin ondoren herriko autobusean ere publizitate hori jartzeko saiaturiko dira.

4.- Asteazken arratsaldetan edota beste edozein arratsaldetan azoka arratsaldez zabalik egotea, jendeak bertako produktuak erosteko aukera izateko.

Azokan dauden postu fijoak arratsaldez ere zabalik daude.

Udalean aztertzen ari da Baserriko Produktuen Azoka hileroko jartzea eta zapatuetan izango litzateke seguraski.

5.- Produktu ekologikoak potentziatu, ezagutarazi eta nekazal produktu ekologikoen feria gehiago antolatu, adibidez auzoetako jaietan, Santamasak, San Juanak,...

Produktu ekologikoak potentziatzeko udalak duen proiekturik garrantzituena da ortu ekologikoena.

Garagartza auzoan udal ortuak martxan jarriko dira eta nekazaritza ekologikoko erizpideak aplikatuko dira. Proiektu honen helburu bat da herritarren artean produktu ekologikoen onurak ezagutaraztea.

6.- Arrasateko baserriko nekazariei beren produktuak, gazta, barazkiak, fruta, ogia,... aukera eman plazan, dendetan, saltzeko eta dirulaguntzak eman gure inguruko paisaiatik desagertu ez daitezen.

Baserritar produktuen azokara joateagatik ordaindu behar den tasa Arrasatekoek bonifikatuta dute, hau da, ez dutela ezer ordaindu behar.

Bestetik Emplengu sailatik Arrasaten enpresa berriak sortzeko laguntzak ematen ditu eta nekazaritza arloko ekimenek tratamendu berezia dute, dirulantza % 15 gehiago.

Bestetik Udalak baserritarren

7.- Produktu ekologikoak ekoizten dituzten baserriei lagundu.

5.proposamenean komentatu dugun bezala ortu ekologikoen proiektua produktu ekologikoak zabaltzeko oso lagungarria izango da; herritarrek ezagutzen hasteko lehendabiziko urratsa izan daiteke eta gero beste inicitiba batzuk ere martxan jar ditzakegu.

Santamasetako jaietan sari batzuk banatzen dira partehartzaileen artean eta bat dago bereziki nekazal ekologikoari emateko.

8.- Baserritarrak merkatuko plazara jeisten direnean aparkatzeko arazoak izaten dituzte, beraz, lagundu beharko zaie.

Udalak egunero goizeko orduetan bi kale (Otalora kalea eta Mondragones kalea) erreserbaturik uzten ditu azokan postua dutenentzako. Kale horiek "karga y descarga"rako dira eta argi dago kotxea goiz guztia aparkaturik uzteko ez dagoela tokirik guztientzako. Udaltzain bat egoten da aparkalekuak kontrolatzen.

9.- Zarugalden dagoen parkean patinatzeko "U" tokia berreraikitzea proposatzen dugu.

Kirol hau (skate) praktikatzeko patinateko pista "U" dohain nahi dugu eta herri barruan egotea..

Udalak herriko skate taldearekin elkarrizketa batzuk izan ditu kolektibo honen kexak eta iradokizunak tratatzeko.